



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

LEHEN

SEKTOREA

ORAIN

SARIA:
BEKO
MINTEGIAN
60 €KO
EROSKETA

2019ko MARTXOA 162. ALEA

ZER DIO?



AITOR AZKARATE

Aitor Azkarate aniztarrarekin elkartu gara Etxetik Plazarako ale honetan. Bere familiaren gasnategian egiten du lan, Jauregian, eta etxeko negozioa oinarri hartuta, beren filosofia eta lan egiteko moduaz egin digu solas; baita lehenbiziko sektorearen egoeraz ere.

1. Zer da Jauregia?

Anizen dagoen etxaldea da. Behiak ditugu, eta badira urte batzuk esne ekologikoa ekoizten dugula. Horretaz gain, ekoiztutako esnea, jogurtak, gasna eta esne pasteurizatua egiten dugu.

2. Zertan datza zuen ekoizpen-eredua?

Ingurua ahal den neurrian aprobetxatzeko asmoz, ekologikoan ekoizten hasi ginen duela 10 urte. Behiak, belarra dagoen garaietan, inguruko belaietan bazkatzen ditugu. Animalien Osasuna eta ongi-zatea bermatzen dugu, medikamentuen erabilera mugatua baitugu. Behiak elikaduraren zati handian belarra behar duenez, pentsu guti erabiltzen dugu; hortaz, bertan ekoiztutako belarrak du garrantzi handia.

3. Hasiera batean, bertze eredu mota batean oinarriturik lan egiten zenuten. Nolakoa izan zen aldaketa-prozesua?

Aldaketa guztiak bezala, zaila suertatu zitzaigun, baina denborarekin ikasten joan gara, eta egoera berrira egokitzen, bai gu, bai behiak. 2009 arte, eredu konbentzionalean egiten genuen lan: behiak belaietara atera gabe, ia urte guztian zehar elikagai berdintsuak janez eta medikamentuak inongo neurririk gabe erabiliz. Behiek osasun arazo gehiago zituzten, nahiz eta esne gehiago ekoiztu. Aldaketa-trantsizioak urte bat iraun zuen; ondoren, ekologikoaren zigilua eman ziguten. Baina denborarekin, konturatu ginen aldaketa-prozesua luzeagoa dela: behiek zenbait urte behar dituzte egoera berrira egokitzeko, baita belaiak edota guk geronek ere.

4. Zein da zuen lanaren alderik latzena? Eta goxoena?

Gaur egun, horrenbertze paper egin beharrak egia da bermea ematen duela, baina ohitura falta dugu. Bertzalde, alde positiboa: egiten duzun produktu edo lanarengatik, bezeroengandik esker ona jasotzea. Azken finean, horrekin gelditzen zara.



5. Soriako behi-granja erraldoiaren harira, alerta piztu zen abeltzainen artean. Zer egin dezakegu (bai ekoizeleek, bai kontsumitzaileek) horrelako eredu industrialen aitzinean? Badago alternatibarik?

Egia da zalaparta sortu zela eta momentu batean jendearen kezka piztu zuela, eta, batez ere, sektore honetan gabiltzanondako. Baina guk uste dugu ez dela nekazarion afera bakarrik, kontsumitzaileak garen aldetik ere zerbait errateko dugu. Egunero, zerbait ahora eramaten dugu; beraz, elikagaiak erosteko ahalmena dugunez, gure erabakiekin zer eredu mota nahi dugun erabaki dezakegu.

Alternatibak egon daitezke. Egia da zaila dela: oro har, sektorean nekazari guti gaude, eta guk uste dugu aldaketak belaunaldi berriekin etorri beharko duela. Gizarteak ere zerbait erratekotan, behinik behin erran beharko du zer eredu mota nahi ez duen. Gaur egun, bertako produktuak, ekologikoak, indarra hartzen ari dira, eta uste dugu hortik joan daitekeela etorkizuna.

6. Zer etorkizun du lehenbiziko sektoreak gure eskualdean?

Aipatu dudana: bertakoa, ekologikoa.

Guk uste dugu ekoiztu eta, ahal bada, bertan transformatu eta saldu behar dela. Dibertsifikatzea garrantzitsua da, hau da, ez dugu zertan behiak bakarrik izan; baratzea edo fruta arbolekin konbina dezakegu, transformazioarekin... Etorkizuna hortik joan daitekeela uste dugu.

7. Esnekiak ekoizteaz gain, bisita-gidatuak ere antolatzen dituzue zuen gasnategia ezagutze-ko. Zerk harritzen ditu gehien bisitariak?

Denborarekin, lehenbiziko sektorearekiko gizartearen ezjakintasuna ikusi dugu. Guretako oinarritzakoak diren gauzek harritzen dituzte gehien haiek. Bisita hastean, behiak esnea emateko, lehenik erditu behar dutela erraten diegu, eta, gaur egun, gehienek ez dakite hori.

8. Zer plan duzue etorkizunerako?

Momentuz ez dugu aldaketa handirik egiteko planik.

9. Bertzerik gehitzeko?

Gazteak animatu nahi ditugu, lehenbiziko sektoreak merezi du eta.





Aitorrek bere lanbidearen alde onak aipatzean, honako hau erran du: «bezeroengandik esker ona jasotzea». Zergatik erran ote du *bezeroengandik*, eta ez, *bezeroetatik*? Bada, lanketa hau bien arteko ezberdintasuna lantzeko aprobetxatuko dugu; **NONDIK** eta **NORENGANDIK** deklinabide kasuen ezberdintasuna ikusteko, hain zuzen ere.

Erranahiari dagokionez, **NONDIK** eta **NORENGANDIK** baliokideak dira; baina, bigarren deklinabide kasua, bizidunekin erabiltzen da:

- **Bizidunak:** **NORENGANDIK** (bezeroengandik, amarengandik, zakurrengandik...)
- **Bizigabeak:** **NONDIK** (etxetik, mendietatik, autobusetik, Baionatik...)

Hortaz, bezeroetatik erratea ez litzateke egokia izanen, bezeroak bizidunak baitira eta **NORENGANDIK** kasua erabili beharko baitugu, derrigorrean.

Ea hurrengo ariketak zuzen egiteko gai zareten eta deklinabide kasu egokia aukeratzen duzuen. Lagungarri gisa, deklinabide kasuen taula ttiki hau izanen duzue oinarri:

NONDIK			NORENGANDIK		
Singularra	Plurala	Mugagabea	Singularra	Plurala	Mugagabea
-(e)tik	-etatik	-(e)tatik	-a(ren)gandik	-engandik	-(r)engandik
etxetik	etxeetatik	etxetatik	lagunarengandik	lagunengandik	lagunengandik

1. Miren eskapo ibili da gau osoan.
a) neskengandik b) neskengatik c) neskatatik d) nesketatik
2. jasotako ideiak lagungarri suertatu zaizkit.
a) Maialenetik b) Maialenengandik c) Maialengatik d) Maialenengan
3. Nire apunteak hartu nituen.
a) mahaigatik b) mahaiatik c) mahaiarengandik d) mahaitik
4. Joxeren jaso nuen ogitar tekoa.
a) amatik b) amagatik c) amarengandik d) amarengatik
5. Nire aitonak ikusi ninduen.
a) lehiotik b) leihoagandik c) leihotik d) leihoatik
6. jaso nuen ostikada.
a) Mutilarengandik b) Mutilatik c) Mutilgandik d) Mutilarenetik



BITXILOREAK

Elkarriketan ikusi ditugu abeltzaintza ekologikoaren aldeko apustuaren onurak, baina makro ereduak eta gaur egun ditugun kontsumo mota ezberdinek bertze egoera baten argazkia uzten digute. Ondorengo testuan, abeltzaintza mota horren zertzelada batzuk ezagutuko ditugu. Testuari hitz batzuk kendu dizkiogu eta behean jarri ditugu; aukeratu zein den egokiena.

ERNE, SARIRAKO!

Azken bolada honetan, Soriako behi-granja proiektu erraldoiaren mamua zabaldu da, aurkako eta aldeko iritzia sorraziz. Hona hemen datu batzuk: 23.500 buru, horietatik 16.000 helduak eta esnetarako; eta gainerakoak, aitzinerako. Ekoizpen-helburua honako hau da: egunero 490 tona esne _____1_____, hau da, ia 179.000 tona urtero. 250 lanpostu sortuko lirateke, baina bertze zenbaten galera ekarrita? Eta sortuko _____2_____ purinak eta beharko luketen ur kopurua?

Horrelako makroproiektuak abeltzaintza ekologikoaren oinarriak suntsitzen ditu. Abereak lurrarekin harreman zuzena du (lurretik hartzen du janaria, eta lurra ongarritzen du gorotzen _____3_____). Era horretan, lurraren emankortasuna bermatzen da, biodibertsitatea zaintzen baita. Abereen _____4_____ bermatzen da, beren behar fisiologikoak aseztuz. Gainera, haien janariak ez du inongo gai kimikoren arrastorik. Bertako arrazak hazten dira, ingurura egokituta baitaude. Abereen fisiologia errespetatzen saiatzen da abeltzaina, eta ez da onartzen metodo naturala ez den ernaldirik, ezta eraldaketa genetikorik ere. Bertzetik, antibiotikorik ez da erabiltzen, eta abereen elikagaiek ezin dute gai kimikoen arrastorik izan. Sail bakoitzean izan _____5_____ abere kopurua mugatzen da, animalien gorotzek ura kutsa ez dezaten.

Euskal Herrian abeltzaintza ekologikoa ez da nekazaritza ekologikoa bezain ezaguna. Dena den, gero eta baserritar gehiagok aukeratzen dute bere abantailengatik, nahiz eta gaur egun, _____6_____ anitz dauden. Azken urteetan, batez ere Frantzia, Italia, Herbehereetan, Britainia Handian eta Espainian hasi da ekoizpen ekologikoa (banaz bertzekoa kontuan hartuta, Europa erabiltzen da lur gehien ekoizpen ekologikorako). Munduan, ekoizle handienak Australia eta Argentina dira, _____7_____.

Etorkizunean indartu behar da **ekoizpen** eredu hau eta une honetan dauden zailtasunak desagerrarazten lagundu: ekoizleek arazo handiak izaten dituzte produktuak merkaturatzeko. Erakundeen aldetik, laguntza handiagoa behar da, bai merkaturatzeko, bai produktuak bereizi eta ezagutarazteko, baita ikerketak egiteko ere. Eta _____8_____, zer egin dezakegu? Ba, den-dena gure esku dago. Jasangarritasuna ikuspuntu guztietatik lortu nahi da, ekosistemen oreka eta jarraipena bilatuz, eta gizakiok ekosistema horren barrenean izanda, garbi dago gure ardura ere badela.

- 1- a) ekoizteko
b) ekoiztera
c) ekoiztea

- 2- a) lirateke
b) liratekeen
c) lirateken

- 3 - a) esker
b) bidez
c) bitartean

- 4 - a) ongizatea
b) ongi-izatea
c) ongi-zatea

- 5 - a) daitekeen
b) daiteke
c) dezakeen

- 6- a) ostopoa
b) oztopoek
c) oztopo

- 7- a) horrez gain
b) urrenez-urten
c) hurrenez hurren

- 8 - a) kontsumitzaileak
b) kontsumitzaileok
c) kontsumitzaileek



SUKALDEA DANTZAN

JOGURTA

Zenbat jogurt jaten dugun urtean zehar, eta zein aise egiten den etxean. Dena dela, egiten erraza izanagatik, normalean dendan erosten ditugu esneki horiek. Hori dela eta, Etxetik Plazarako irakurleak honako errezeta hau etxean egitera gonbidatu nahi ditugu. Beraz, irakurle maite, anima zaitetz! Errezeta ordenatu gabe dagoela ikusiko duzu, horixe izanen baita zure lehenbiziko lana.

OSAGIAK:

- litro bat esne
- jogurt bat
- gustuko erreximenta (nahi bada)



ORDENA

- a) Ondoren, jogurta esnari erantsiko diogu, eta ongi-ongi nahasiko dugu.
- b) Azkenik, labea itzali eta poteak 8-10 orduz barrenean utzi. Labetik atera eta gero, hozkailuan sartu beharko ditugu jogurtak (lau orduz gutienez).
- c) Temperatura egokia kalkulatzeko, behatza sartzen ahal dugu, eta erretzen ez badu, esnea prest egonen dela jakinen dugu (kasu eman erre gabe!).
- d) Poteak ongi itxi ondoren, trapu batez estaliko ditugu, berotasuna ongi manten dezaten.
- e) Lehendabizi, eltze batean esnea egosi behar da, eta 40°C arte epeltzen utzi.
- f) Nahi izanez gero, orain izanen da marmelada botatzeko momentua (koilarakadatxo pare bat).
- g) Labea 50°C-an berotu behar da, eta bitartean, kristalezko pote batzuetara, eltzeako esne-jogurt nahasketa botako dugu.

ERANTZUNAK

LAN eta LAN (4. or.):

1- a; 2- b; 3- c; 4- c; 5- c; 6- a

SUKALDEA DANTZAN (6. or.):

1- e; 2- c; 3- a; 4- g; 5- f; 6- d; 7- b

160. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (6. or.):

1- b; 2- a; 3- c; 4- a; 5- c; 6- a; 7- a; 8- b; 9- b; 10- a

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria: **Lesakako
BEKO mintegian
60 €ko erosketa**

161. aleko irabazlea:
**Josu Iriondo Martiarena
Berakoa**

ETXETIK PLAZARA liburua DEBALDE!!

Eska ezazu,
Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko
IKA euskaltegietan



OHARRA: erantzunak apirilaren 17a baino lehen bidal itzazu.

SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. OR.):

- | | |
|-----------|-----------|
| 1 - _____ | 5 - _____ |
| 2 - _____ | 6 - _____ |
| 3 - _____ | 7 - _____ |
| 4 - _____ | 8 - _____ |

EP 162 (2019/04)



HITZ GURUTZATUAK



Erantzunak

- 1.- Kontsumitzaile
- 2.- Konbentzionala
- 3.- Ekiztu
- 4.- Diberstifikatu
- 5.- Egokitu
- 6.- Nekazaria
- 7.- Esnekiak
- 8.- Elikagaiak
- 9.- Zalaparta
- 10.- Alternatiba
- 11.- Belarra

Goitik beheiti

1. Ondasunak edo zerbitzuak erosi, erabili edo gozatzan dituen pertsona fisiko edo juridikoa.
2. Ohituraren edo hitzarmenaren ondorioz ezarria edo onartua dagoena, konbentzioskoa.
3. Helburu edo erabilera baterako egokia egin edo bihurtu, egokitasuna eman; moldatu.
4. Lurra landuz bizibidea ateratzen duen pertsona.
5. Elikatzeko baliagarri den edozein substantzia.

Ezkerretik eskuinera

3. Eman, sortu, egin, bereziki ekonomia-jardueraren bitartez, edo horren ikuspegitik.
4. Aniztu; zerbaiten aldaerak ugaltu.
7. Esnetik egindako elikagaiak.
9. Iskanbila. Inolako ordenarik gabe, nahasian, eginiko ekintza zaratsua.
10. Aukera, hauta daitezkeen zeretako bakoitza; bereziki, zerbaiten ordezhura baino aukera hobe-tzat eskaintzen edo proposatzen dena.
11. Organo guztiak bigunak, ez-zurezkoak, dituen landare berdea, gehienetan urterokoa. Aziendarentzako janari gisa erabilia.

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

